



Arartekoaren 2018S-1020-16 Ebazpena, 2018ko abuztuaren 20koa. Horren bidez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari iradoki zaio XX Fundazioaren patronatuko kideei helaraz diezaien Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzan aurkeztutako inbentarioa osatzen duten dokumentu grafikoaren kopia bat.

Aurrekariak

1. Arartekoak AA jauna eta BB andrea senar-emazteek aurkeztutako kexa bat onartu zuen izapidetzeko. Horren bidez, erakunde honen esku-hartzea eskatu zuten interesdunek, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzak, ustez, ez zuelako esku-hartzerik egin XX FUNDAZIOAREN funtzionamendua zela-eta.

Kexagileek (fundazio horren patronatuko kide dira) adierazi zuten, fundatzailea, CC andrea, hiltzean, 2004an, fundazioaren egoitza osatzen zuten bi higiezinak AA jaunari eta haren emazteari laga zizkiela testamentu olografoaren bitartez. Fundazioaren presidentek ez zuen horren berri izan fundatzailea hil eta bi hilabetera arte; ordurako higiezin horien titulartasuna fundazioaren alde inskribatuta zegoen.

Horren ondorioz, fundazioak AA jaunaren eta haren emaztearen aurka egin zuen auzitan, zalantzan jarritz testamentu horren baliozkotasuna, higiezinaren titulartasuna irabazi-asmorik gabeko erakunde horren alde berreskuratze aldera.

Azkenean, justizia auzitegiek arrazoa eman zioten AA jaunari, bai lehen instantzian, bai apelazioan, eta fundazioak erregistroko inskripzioa deuseztatu behar izan zuen, eta higiezinak AA jaunari formalki eman behar izan zizkion; han zeuden eta etxeko hornidura ez zizkion eman, ordea, elementu horiek ez baitzeuden sortzaileak egindako legatuan jasota.

Horixe da kexak hizpide duen gaiaren funtsa. Izan ere, kexagileen arabera, orduetik, fundazioko presidentearen ezezkoa jaso dute transmititutako ondasunen zerrenda zehatza eta horien erosketa eta besterentze balioa jakiteko ekimen guztiek, eta, haien esanetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzak ez du jarduera irmorik abiarazi, adierazten baitu fundazioaren funtzionamendua legearekin bat datorrela.

2. Aurkeztutako kexari izapide egokia emateko, informazio-eskaera egin zitzaion Herri Administrazio eta Justizia Sailari, eta sail horretako sailburuaren idazkiaren bidez bete zen eskaera hori.





Fundazioei eragiten dien indarreko araudian ezarritako mugen barnean burututako jarduketan berri eman zuen sail horrek, txosten luze eta zehatzaren bidez.

Lehenik eta behin, kexa-idazkian adierazi zen hainbat saiakera egin zirela jakiteko zehazki zer ondasun zeuden fundazioak egoitatzat baliatutako higiezinan, zein zen horien balorazioa, eta nora eraman ziren. Hori dela-eta, Fundazioen Babeslaritzak adierazi zuen inbentarioa aurkezteko eskatu ziola XX Fundazioari, eta fundazioaren presidentek aurkeztutako inbentarioak orduan indarrean zegoen araudian jasotako betekizunak betetzen zituela. Hala ere, kexagileak ez zetozen bat inbentario horretan egindako ondasunen balorazioarekin.

Gauzak horrela, babeslaritzak azaldu zuen, 2013an, kexagileek hala eskatuta, XX Fundazioaren presidente DD jaunari idazki bat igorri ziola, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari dokumentu hauek bidaltzeko eskatuz:

"- Inventario de los bienes y derechos de la Fundación desde el año 2005 hasta la actualidad, en el que consten con claridad y exactitud los siguientes extremos:

- Descripción de todos los bienes y derechos de la Fundación.*
- Fecha de adquisición.*
- Valor contable.*
- Variaciones producidas en la valoración.*
- Ventas de los bienes y valor por el que se han realizado las mismas, así como las personas o entidades a las que han sido vendidas.*
- Pérdidas por deterioro, amortizaciones y cualquier otra partida compensadora que afecte al elemento patrimonial.*
- Cualquier otra circunstancia de carácter significativo que afecte al elemento patrimonial, tales como gravámenes, afectación a fines propios o si forman parte de la dotación fundacional."*

Errekerimendu horretan ezarri zen, zehaztutako legezko betekizunak betetzen zituen inbentarioa ez aurkezteak (fundazioen patronatuen betebeharra da hori) ekar zezakeela babeslaritzak jarduerak egiaztatzeko espedientea abiaraztea betebeharrorik betetzeko ardura zuten patronatuko kideen aurka —neurri hori ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 28.2. artikuluan dago jasota—.





Fundazioaren presidentearen erantzuna jasotakoan, Herri Administrazio eta Justizia Sailak (gaur egungo Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila) beste errekerimendu bat bidali zion, 2015eko martxoaren 5ean, eta ohartarazi zion inbentarioetan jasotako informazioa hobeto banakatu beharra zegoela.

Idazki horretan adierazi zen fundazioak urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzan kontuak aurkezteko betebeharra betetzen zuela, baina hutsune bat zegoela XX Fundazioaren sortzaile CC andreak jaraunspen bidez fundazioari transmititutako higiezinetan zeuden ondasun higigarriek hura hil zenetik gaur egunera arte izandako segidako traktuari zegokionez.

Horrenbestez, fundazioak informazio osoa eman zezan, eta konpentsatzeko 2004an (sortzailea hildakoan) egindako inbentarioan fundazioaren ondasun higigarriak sartu ez izana, fundazioak jarauntsia onartu izana, 2007ra arteko urteko kontuetan inbentariarik egin ez izana, aintzat hartuz ez zegoela konstantziarik ondasun higigarrien banakako balorazio ekonomikoari, besterentzeari, erosketei eta dohaintzei zegokionez, babeslaritzak beste hau ere eskatu zion presidenteari: *"Inventario de todos los bienes de la Fundación, con su valoración económica individual, desde 2004 hasta 2011, o en caso de imposibilidad manifiesta, dado el tiempo transcurrido y la falta de la correspondiente valoración económica de los bienes muebles en documentos oficiales, una Memoria explicativa que resuma las principales variaciones del patrimonio de la Fundación acaecidas desde la fecha del otorgamiento el 26 de julio de 2004 de la escritura pública de adjudicación parcial de la herencia de Doña CC".*

2015eko maiatzaren 15ean, XX Fundazioaren 2004tik gaur egunera arteko ekitaldi ekonomikoen inbentarioa jaso zuen Herri Administrazio eta Justizia Sailak -fundazioaren presidenteari bidali zuen—. Inbentario hori, halaber, kexagileei, AA jaunari eta BB andreari, helarazi zitzaion.

Babeslaritzaren txostenaren arabera, inbentario horrek fundazioen araudiak ezarritako betekizunak betetzen zituen, bai eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei eragiten zien indarreko kontabilitate-legerian ezarritakoak ere. Hortaz, 2015eko ekainaren 18an, adierazitakoa aintzat hartuta, idazki bat igorri zitzaion fundazioaren presidenteari, eta hauxe adierazi zitzaion: *"En consecuencia, examinada la documentación, se da por cumplimentada la solicitud del Protectorado a la "Fundación XX", del Inventario correspondiente a los años 2004-2013, complementario de las rendiciones de cuentas presentadas en dichos años al mismo."*

Fundazioen Babeslaritzak, Arartekoari bidalitako txostenean, azaldu zuen, ezin zuela bere iritzia eman aurkeztutako inbentarioan jasotako ondasun higigarrien





balorazioaren inguruan baina ondoriozta zitekeela XX Fundazioak bete zituela fundazioen urteko kontu-emateetan nahitaez bete beharreko betekizunak. Betekizun horiek zehazten dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzeko Dekretuaren (100/2007, ekainaren 19koa) 15. artikulua eta Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuaren 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenak, irabazteko xederik gabeko entitateen kontabilitate plana onartzen duenak.

Hau da, Fundazioen Babeslaritzak ondorioztatu du XX Fundazioaren inbentarioak, 2015eko maiatzaren 15ean aurkeztutakoak, betetzen dituela fundazioen araudian nahiz irabazi-asmorik gabeko erakundeei eragiten dien indarreko kontabilitate-legerian aurreikusitako betekizunak.

Aitzitik, babeslaritzak hau azpimarratu du erakunde honi helarazitako txostenean: *"no es posible realizar una comparativa con los bienes muebles legados a la Fundación por Doña CC, incluidos en el inmueble heredado por la entidad fundacional y posteriormente entregado a Don AA y Doña BB, promotores de la queja, mediante sentencia judicial, dado que en su día no se hizo relación ni valoración económica oficial y detallada de los mismos con motivo de la citada herencia, no siendo reclamado judicialmente dicho extremo por ninguno de los patronos."*

Beraz, Fundazioen Babeslaritzak dioenez, *"al fallecer la fundadora y tras la aceptación de la herencia por la Fundación debieron incluirse en el Inventario que se realizó por la "Fundación XX" todos los bienes contenidos en los inmuebles legados por aquélla.*

En aquel momento debió incluirse dicha relación y tasación en un documento oficial, sin el cual no existe prueba fehaciente y oficial que determine los bienes muebles heredados por la Fundación, así como su respectiva valoración económica, lo cual no fue por otro lado reclamado judicialmente por los patronos de la entidad. No obstante, el hecho de que hasta 2011 no haya recaído sentencia firme referente a la titularidad del inmueble que contenía los bienes muebles y que finalmente ha sido atribuida de D. AA y Doña BB, ha reducido en gran medida la posibilidad de realizar un inventario en forma sobre los mismos.

En conclusión, cabe afirmar que no existen valoraciones oficiales y pruebas fehacientes del valor de los muebles legados por la fundadora en el momento de su fallecimiento a la "Fundación XX", que puedan ser objeto de comparación con el inventario presentado por el Presidente de la Fundación y realizado por





persona habilitada, el cual se presume válido y correcto, teniendo en cuenta que han sido presentadas las cuentas anuales al Protectorado de Fundaciones y los ingresos han sido anualmente destinados a los fines previstos en los estatutos por la fundadora."

Gogoetak

LEHENENGOA: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legea (12/1994, ekainaren 27koa) izan zen euskal fundazioen sektoreari araubide juridiko integrala eman zion lehenengo araua. Ondoren, lege hori osatu zuten ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duenak) eta ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duenak).

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legeak (9/2016, ekainaren 2koa) indargabetu zuen 12/1994 Legea. Hala ere, arauzko garapena lortu arte, indarrean jarraitzen dute 100/2007 eta 101/2007 dekretuek, lege horren kontrakoa ez dioten xedapenei dagokienean.

Ekainaren 19ko **100/2007 Dekretuaren** (Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duenak) **1. artikulua** dio babeslaritza administrazio organoa dela, fundazioei aholkuak eta laguntza teknikoa ematen diena eta fundazioak kontrolatzen dituena, eta organo horrek *"fundazio zuzenbidearen antolamendu zuzena erraztu eta bultzatzea duela helburu **bai eta fundazioek legearen arabera eratu, jardun eta suntsitzen direla ere.***"

Hauxe dio 16. artikulua:

"1.- Fundazioen ardurapean egongo da Inbentarioen eta Urteko Diru-kontuen Liburua, bai eta Aurrekontu-liburua, Akta-liburua eta Eguneko Liburua ere.

2.- Inbentarioen Liburua eta Urteko Diru-kontuen Liburua fundazioaren hasierako dotazioa osatzen duten ondasunen inbentarioarekin batera zabalduko da eta, bertan, fundazioaren ondasun eta eskubideen sarrerak eta irteerak, balorazioa eta ekonomia ekitaldi bakoitza ixterakoan dagoen goeraren balantzeak jasoko dira."





Erregelamenduaren 28. artikulua, bestalde, hau aurreikusten du:

*“**Jardueren egiaztapena. 1.**– Babeslaritzak, besteak beste, honakoak egiaztatu beharko ditu: fundazioen helburuak benetan betetzen diren, fundazioaren baliabide ekonomikoak fundazioak dituen helburuetarako erabili diren eta indarrean dauden arauetan aurreikusitako eginbeharrak betetzen diren”.*

Hortaz, argi dago Fundazioen Babeslaritza dela fundazioak kontrolatzen dituen administrazio organoa, eta, zehatzago esanda, haren eginkizuna dela fundazioek ordenamendu juridikoan ezarritako betebeharrak (horien artean jasota dago, berariaz, inbentarioen liburua osatu eta hura egunerako betebeharra) betetzen dituztela zaintzea.

BIGARRENA: Funtsean, kexagileek planteatu dute, Fundazioen Babeslaritzari behin eta berriro ohartarazi arren, XX Fundazioak ez zituela inbentarioan jaso YY kokatutako higiezinetan zeuden ondasun higigarriak —2004an, CC andrea fundatzailea hiltzean, jaso ziren jaraunspenean, eta horiek zeuden higiezinak AA jaunari laga zizkion fundazioaren sortzaileak—.

Diotenez, Fundazioen Babeslaritzak 2015ean hala eskatuta, fundazioaren presidentek epez kanpo aurkeztutako inbentarioari erreparatuta, ezin da zehaztu han ageri diren ondasun higigarriak hildakoak lagatako guztiak ote diren, eta adierazitako prezioa bat datorren haiek besterentzean zuten merkatu-balioarekin.

Horri lotuta, kexagileek berriz ere diote, fundatzailea hil zenetik, 2004tik, alegia, babeslaritzan salatu izan dutela presidentek ez zuela jaraunspenean jasotako ondasun higigarri horien berri eman XX fundazioaren inbentarioan. Zehatzago esanda, azaldu dute, 2007an, presidentek, Fundazioen Babeslaritzari igorritako idazki batean, adierazi zuela, horrekin batera, fundazioaren ondasunen (patronatuko kideen erdiak ez dituzte horiek sekula ikusi) argazki-inbentarioaren CD bat bidaltzen zuela.

Izan ere, kexagileek espediente hori dela-eta aurkeztutako dokumentazio zabala aztertzean, egiaztatu da, 2007ko urriaren 11n, Fundazioen Babeslaritzak egindako errekerimenduari erantzunez, fundazioaren presidentek idazki luzea aurkeztu zuela (erakunde honen sarrera erregistroko zigiluaren zenbakia: 594650), eta 9. orrialdeak hau ezartzen zuela:

*“**b) Igualmente se acompaña CD, con el inventario fotográfico de los bienes muebles, cuadros, joyas y ajuar doméstico existentes al fallecimiento de nuestra fundadora en las tres casas de YY de Getxo.**”*





Gainera, 2012ko urtarrilaren 16an, ZZ zaharki galeriaren jabeak fundazioaren presidentearen aurrean ziurtatu zuen, hark eskatu ziola YY-ko hiru eraikinen edukia husteko, eta, ondoren, objektu guztiak hiru multzotan banatu zirela; horietako baten etiketan “salgaiak” idatzi zen, eta, **argazkiak atera ondoren, multzo horretako objektuak saldu egin zitzaizkion** EE jaunari, 70.000 euroan (BEZa barne).

Horiek horrela, oso garrantzitsuak dira bi dokumentu grafikoak, CDa zein argazkiak, horiek eskuratuz gero argitu egingo litzatekeelako XX Fundazioari CC andrea sortzaileak fundazioari transmititutako higiezinetan zeuden ondasun higigarriek hura hil zenetik gaur egunera arte izandako segidako traktuaren inguruko hutsunea, Herri Administrazio eta Justizia Sailak berak 2015eko martxoaren 5ean fundazioaren presidenteari helarazitako idazkian adierazi zuenez, eta, horrek aukera emango lukeela kontrastatzeko dokumentu horietan ageri zen edukia eta haren balorazioa eta presidenteak Fundazioen Babeslaritzari emandako inbentarioen liburuan jasotako edukia.

Kexagileak zenbaitetan ahalegindu dira dokumentu grafiko horiek babeslaritzarengandik lortzen, baina orain arte ez dute lortu.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

IRADOKIZUNA

Arartekoak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari iradokitzen dio XX Fundazioaren patronatuko kide guztien esku jar ditzan bai CDa (presidenteak 2007ko urriaren 11ko idazkian aipatutako argazki-inbentarioa duena) eta bai horiek saltzeko agindua jaso zuen ZZ zaharki galeriaren jabeak igorritako ziurtagirian aipatutako argazkiak.

